



II. MAILAKO SURF ENTRENATZAILEA IZATEKO IKASTARORAKO DEIALDIA

Deialdi honetako entrenatzaile ikastaroa igaroaldiko trebakuntza jarduerak arautzen dituen otsailaren 5eko ECD/158/2014 Aginduan ezarrira xedatzen da.

Prestakuntza amaitutakoan, eta aipatutako otsailaren 5eko ECD/158/2014 Aginduan eskatutako baldintzak bete badira, Kirolaren Euskal Eskolaren (Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritza) aintzatespen ofiziala lortuko da eta, beraz, dagokion diploma ofiziala emango da.

Jarduera antolatu duen federazioak otsailaren 5eko ECD/158/2014 Aginduan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, ez da prestakuntza aitortuko eta, ondorioz, ez da diploma ofizialik lortuko. Era berean, Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzak prestakuntza saio horiekin ezin dela jarraitu zehaztu ahal izango du, egoera horren berri izaten duen unetik, federazio sustatzaileak izan ditzakeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboei kalterik egin gabe.

1. PRESTAKUNTZAREN HELBURUAK

II. mailako ikastaroak kirol-teknifikazioan edo perfektzionamendu teknikoan aritu nahi duten teknikarientzako dira. Maila honetan eskumen orokor hauek eskuratuko dira:

- Kirol-teknifikazio etapan oinarrizko entrenamendua eta perfektzionamendu teknikoa egokitu, zuzendu eta dinamizatu.
- Kirolariek maila honetako jarduera, lehiaketa eta ekitaldietan parte hartzen duten bitartean antolatu, lagun egin eta babestu.
- Beharrezko baliabide materialak kudeatu eta kargura dituen teknikarien jarduerak koordinatu.
- Kirol-hastapeneko jarduerak, lehiaketak eta ekitaldiak antolatu.
- Ibilbideak diseinatu eta kirolariak gidatu inguru naturalean.

* Hori guztia erreferentziazko programazioan ezarritako segurtasun-baldintzen eta jarraibideen arabera.

2. EGITURA ETA EZAUGARRIAK

Ikastaroa 3 bloketan egituratuta dago: bloke komuna, espezifikoa eta praktikaldia.

BLOKE ESPEZIFIKOA		
MODULUAK / ARLOAK	ORDU PRESENTZIALAK	URRUNEKO ORDUAK
Surfingeko oinarrizko maniobren teknikak	48	27
Surflariaren entrenamendu fisikoa	48	22
Lehiaketako erregelamendua eta araudia	5	15
Egokitutako surfinga	6	9
GUZTIRA	107	73

BLOKE KOMUNA		
MODULUAK / ARLOAK	ORDU PRESENTZIALAK	URRUNEKO ORDUAK
Kirol-ikaskuntzaren oinarriak (MED-C201)	5	40
Kirol-entrenamenduaren oinarriak (MED-C202)	5	60
Kirol egokitua eta desgaitasuna (MED-C203)	2	18
Kirol-antolakuntza eta legedia (MED-C204)	2	18
Kirola eta generoa (MED-C205)	2	8
GUZTIRA	16	144

PRAKTIKALDIA

200 ordu

Prestakuntzaren ezaugarriak:

- Saio presentzialak, ordutegiaren %80an nahitaez joan behar da.
- Urruneko prestakuntza:
 - Urruneko saioak ikaskuntzarako plataforma birtual baten bidez egingo dira.
 - Irakaskuntza telematikorako bereziki diseinatutako material didaktikoak izango dira.
 - Azterketak presentzialak izango dira.
- Praktikaldia

- Federazioko berezko jardueretan edo federazioak baimendutako kirol elkarreentakoetan egingo dira.
- Praktikaldia hasteko nahitaezkoa izango da ikasleak bloke espezifikoa osorik gaititzea eta matrikulatuta egotea edo bloke komuna amaituta izatea.
- Trebakuntza hasten denetik gehienez ere 12 hilabeteko epea izango da.

3. SARTZEKO BALDINTZAK

- Bigarren Hezkuntzako (DBH) graduatu titulua edo ondorio akademikoetarako titulazio parekidea ziurtatu beharko da*

* Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren pareko titulazioa.

- a) Teknikari laguntzaile titulua.
- b) Teknikari titulua.
- c) Batxilergo Bateratu Balioaniztuneko (BBB) bigarren maila gaindituta izan beharko da, eta halakorik ezean, Batxilergo Bateratu Balioaniztuneko lehenengo bi mailetan guztira gehienez ere bi ikasgai dituela gainditu gabe ziurtatu beharko du.
- d) Goi mailako Batxilergo titulua.
- e) Irakaskuntza ertainen erreformako lehen ziklo esperimentaleko bigarren maila gaindituta izan.
- f) 1963 planeko hirugarren maila edo Arte Aplikatuen eta Lanbide Artistikoen irakaskuntzetako ikastaro komun esperimentalen bigarren maila gaindituta izan.
- g) Ofizialia industrialeko titulua.
- h) Ondorio akademikoetarako aurrekoetakoren baten baliokidetzat jotako beste ikasketa batzuk gaindituta izan.
- k) Batxilergoaren baliokideak diren titulu eta egoera guztiak (taularen eskuinaldean).

* *Eskola graduatua eta DBH ez dira parekideak.*

* DBHko titulurik edo parekiderik ez badu, ordezko probak gaindituta sartu daiteke (edo baita gradu ertaineko LHn sartzeko proba gaindituta ere). Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak egiten du proba hori urtean behin. Informazio gehiagorako, egin klik [hemen](#).

* Atzerriko titulazioa dutenek ikastaroa egin dezakete, ikastaroa antolatzen duen federazioan agiri hauek aurkeztuz gero:

- [Ikastetxeetan edo azterketa ofizialetan izena emateko txartela](#) (beteta eta sinatuta).

- Atzerriko titulazioa homologatzeko eskariaren fotokopia konpultsatua, eskudun hezkuntza administrazioan eginda (ikastaroa egin ahal izateko titulazioaren bati buruzko eskaria izan behar da). [Informazio gehiago](#).

Ondoren, ikastaro osoa amaitu baino lehen (praktikaldia barne), ikasleek federazioan aurkeztu beharko dute hezkuntza-administrazioak emandako homologazio-ziurtagiria. Bestela, egindako prestakuntzak ez du inolako balio ofizialik izango. Sarrera-proba espezifikoa gainditu.

- Kirol-modalitate edo -espezialitate bereko I. maila gainditu izana egiaztatu.

4. AURREKO FEDERAZIO-PRESTAKUNTZAK EGIAZTATZEAGATIK SARTU

Federazioaren prestakuntzak eginda dituztenek prestakuntzarekin jarraitzeko aukera dute trebakuntza ofizial honen bidez, betiere egindako federazio-prestakuntza urte jakin baten aurretik egin bada eta honako baldintza hauek betetzen badira:

- 2002ko abenduaren 31 baino lehen egindako edo hasitako federazioaren prestakuntzak (ECD/3310/2002 Agindua indarrean sartu zen):
 - Baldintza orokorrak (akademikoak eta adinarenak) eta espezifikoak (sartzeko probak edo meritua) bete.
 - Dagokion federazio arloko I. maila egiaztatu.
 - Kirol-denboraldi batean egiaztatutako diplomaren maila bereko federazio- edo eskola-lizentziaren entrenatzaile gisa jardun izana egiaztatu. Esperientzia hori izan ezean, beharrezko ezagutzak egiaztatzeko "proba orokor" bat egin eta gainditu.
- Aurreko federazio-prestakuntzak ziurtatuta ikastaroan sartzea eskatzeko, interesatuak Kirolaren Euskal Eskolan aurkeztu beharko du [eskaria](#) ikastaroa hasi baino gutxienez 15 egun lehenago eta dagozkion agiri guztiak ere bai.

5. MERITUENGATIKO ETA BESTE PRESTAKUNTZA OFIZIALENGATIKO ARLOAK KONPENTSATU-BALIOZKOTU

- Interesatuak federazioan (HARROBIako instalazioetan) aurkeztu beharko ditu eskaria eta agiriak, ikastaroa hasi baino gutxienez 15 egun lehenago.
 - Bloke komuneko arloak:
 - Jarduera fisikoen eta kirolaren arloko irakaskuntza **ofizialak** ziurtatzeagatik:
 - Ikusi [baliokidetzen taula](#).
 - Jarduera fisikoen eta kirolaren arloekin zerikusirik ez duten irakaskuntza **ofizialak** ziurtatzeagatik, materia bat badator eta irakastorduak berdinak edo gehiago izan badira.
 - [Eskaria](#)
 - Bloke espezifikoko arloak:
 - Kirol modalitate/espezialitate horretako irakaskuntza **espezifikoak** ziurtatzeagatik, bat datorren materia eta irakastordu berdin edo gehiagoko beste ikasketa **ofizial** batzuetan. [Eskaria](#)
 - 971/2007 Errege Dekretuak ezartzen duen goi-mailako kirolaria edo errendimendu handiko kirolaria izateagatik, bloke espezifikoko arloen konpentsazioa lortu ahal izango da, baldin eta horien edukiak teknika, taktika eta erregelamenduaren alderdiei buruzkoak badira. [Eskaria](#)
 - Kirol modalitate honetako edo beste bateko bloke komuna gaindituta dutenek (LOE bloke komuna) edo aurreko ikastaro batzuetan bloke espezifikoko arlo batzuk gaindituta dituztenek, ez dute inolako konbalidaziorik egin beharko, baizik eta dagokion ziurtagiri ofizialaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko dute federazioan.

6. PRAKTIKETAKO ZIURTAGIRIA LORTU, ESPERIENTZIA ZIURTATZEAGATIK

- Lan edo kirol arloko esperientzia jakina egiaztatzen duten ikasleek praktiketako ziurtagiria eskuratu ahal izango dute, praktikaldia egin beharrik gabe.
- Aukera hori izateko ezaugarriak:
 - Lan edo kirol arloko esperientzia kirol-modalitate/-espezialitate berean eta prestakuntza-maila bereko jardueretan.
 - Ezarritako orduen bikoitza baino esperientzia handiagoa.
 - Bloke espezifikoa hasi aurreko esperientzia izan behar du oso-osorik.
- Lan edo kirol arloko esperientzia ziurtatzeko:
 - Lan arloko esperientzia:
 - Besteren konturako langileak: kontratuaren iraupena, gauzatutako jarduera eta lan egindako aldia adierazten dituen enpresa-ziurtagiria.
 - Norberaren konturako langileak: zergapekoen erroldan gutxienez urtebetez altan egotearen ziurtagiria eta interesdunaren adierazpen bat, bere jarduera esanguratsuenak biltzen dituena.
 - Kirol arloko esperientzia:
 - Kirol federatua: Espainiako federazioaren edo euskal federazioaren ziurtagiria, gauzatutako jarduera eta horren aldia adierazten dituena.
 - Eskola-kirola: dagokion foru-aldundiaren ziurtagiria, gauzatutako jarduera eta horren aldia adierazten dituena.
- Interesa duen ikasleak [eskari bat](#) aurkeztuko du federazioak, praktikaldia hasi aurretik.

7. HIZKUNTZA

- Euskara edo gaztelania, eskaeraren arabera.
- Euskarazko eskariak lehentasuna izango dute.
- Gogoan izan pertsona horiek surfa irakasteko eta surfeko entrenamenduak emateko, gero eta beharrezkoagoa dela euskara menderatzea.

8. DIPLOMA

- Prestakuntza osoa gainditzen dutenek diploma ofizial hau jasotzen dute:
 - Surfeko II. mailako entrenatzailea
- Surfaren kirol-modalitateko/espezialitateko ikasketak, dagokion dekretuaren bidez, hezkuntza-sisteman txertatzen direnean, ikasleek diplomaren homologazioa lortu ahal izango dute, eta sistema akademikoan dagokien baldiokidetasuna eskuratu, hau da, Surfeko Kirol Teknikari titulua (Erdi Mailako titulua).

9. IZENA EMATERAKOAN AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- Izena emateko tokia eta modua: Aurkeztu beharreko agiriak (ezin da posta elektronikoz bidali. Presentzialki egin behar da edo posta arruntez bidali helbide honetara):

HARROBIA KIIB

Harrobi plaza 4 (Kontzezio kaletik sarrera)
48003 BILBAO

1. Izena emateko fitxa behar bezala beteta
2. NAN, AIZ edo pasaportearen fotokopia.
3. Karnet neurriko bi **argazki** (izen-abizenak atzean idatzita)
4. **Espediente akademiko ofiziala (IKASGUNEA) edo DBHko tituluaren fotokopia konpultsatua.**
5. Bloke komuneko arloak konpentsatu-baliozkotu behar izanez gero (TADAF, IVEF edo Irakaskuntzako tituluak):
 - **Kompultsatutako NAN**
 - **Espediente akademiko ofiziala edo titulu konpultsatua TAFAD, IVEF edo Irakaskuntza ikasketena.**
 - Kirol Kontseilu Gorenak baliozkotzeko eskaria.
6. I. maila gaindituta duela ziurtatzen duen diplomaren edo ziurtagiriaren **fotokopia konpultsatua**. Bi modutara egiaztatu ahal izango da, prestakuntza motaren arabera:
 - Igaroaldiko prestakuntza ofiziala: Igaroaldiko I. maila **osorik** gainditu izana ziurtatzen duen diploma edo ziurtagiria.
 - Federazio barruko prestakuntza: Eusko Jaurlaritzako gazteria eta kiroleko zuzendariaren ebazpena, II. mailan sartzeko baimena ematen diona.

** Agiri hauen beharrik ez dute I. mailako prestakuntza Kirolaren Euskal Eskolak baimendutako edo aitortutako ikastaroetan egindako ikasleek.*

** Fotokopiak administrazio publiko batzuetan (ez guztietan) eta Notarietan konpultsatuta daitezke.*

- Plaza kopurua: **30**
- Prezioa: **1.320 €**

Bizkaiko Aldundiak bekak ematen ditu urtero eta ikastaroaren zenbatekoaren %60 eta %90 artekoak izaten dira. Beka lortzeko ezinbestekoa da ikastaro osoa gaindituta izatea (bloke espezifikoa + praktikak + bloke komuna).

Informazio hau zehatzago emango zaizue, praktikaldia amaitutakoan.

* Matrikulatzeko oharrak:

- Ikaslea ikastaro osoan matrikulatu daiteke, blokeka edo arloka (sartzeko baldintza orokorrak eta espezifikokoak betez gero).